

## **2015EKO ABUZTUAREN 13KO OHIKO BILKURA:**

**Bilkuran onartu ziren ebazpenen laburpena ematen da argitara:**

### **1.- GETZEKO ORDOKIKO INDUSTRIALDEAN KOKATURIKO HARAGI INDUSTRIAREN ADMINISTRAZIO ESPEDIENTEA ZERTAN DEN.**

“Getzeko hiltegiari ez” plataformak aurkezturiko proposamena kontuan harturik, Udalak ebatzi du Nafarroako Gobernuari hiltegiarendako beste leku bat bilatzeko eskatzea, eta, eskaera hori bete ezean, zeri aziendak han hiltzeko baimenik ez ematea eta xede horretarako instalaziorik ez eraikitzea Galarko udal barrutian.

### **2.- AURREKO BILKUREN AKTAK ONARTZEA**

2015eko ekainaren 13ko eta uztailaren 2ko aktak onartu dira.

### **3.- AURREKONTUARI EGIN BEHARREKO 4. ALDAKETA ONARTZEA**

Aurrekontuari 4. aldaketa egin zaio: “ICIOren soberakinaren diru-sarrera itzultzea” izeneko 1.120.47000 kontu-sailarendako 120.000 €-ko mailegu berezia, hain zuzen, 100.000 euroan finantzatua aurreikusi zirenen gaineko diru-sarrera berriekin eta 20.000 € Diruzaintza Soberakinaren kargura; eta “Mikrokredituak ematea” izeneko 1.3220.48010 kontu sailaren 36.000 €-ko kreditu-transferentzia bat izen bereko 1.110.82100 kontu-sailera.

### **4.- MIKROKREDITUAK**

4.a).- JLECi 12.000 €-ko mikrokreditu bat eman zaio ostalaritza negozio bat irekitzeko.

4.b) AEBri eskatu zaio 12.000 €-ko mikrokreditu bat itzultzeko, esleipenaren baldintzak bete ez dituelako.

### **5-7.- 145/2015, 146/2015, 147/2015 ETA 149/2015 EBAZPENAK BERRESTEA**

### **8.- HIRIGINTZA**

8.a).- Katastroaren 2. industrialdeko 405. lursailari dagokion Xehetasun Azterketa behin betiko onartu da. Luis Miguel Noain Pedroarena jaunak sustatu du hura.

8.b).- Katastroko 2. industrialdeko 202. lursailari dagokion Xehetasun Azterketaren Testu Bategina aurkezteko eskatu da. BSH Electrodomésticos enpresak sustatu du hura.